

Elkartasunaren aldeko apustua

**EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK 2.900 TONA
INGURU ELIKAGAI EMAN DITUZTE
BEHARREAN DIREN FAMILIENTZAT**

- **Tona-kopuru hori 1.737 familiak urtebetean egiten duten elikagai-kontsumoaren baliokide da**
- **Kopuru horretatik, 2.400 tona baino gehiago EROSKI "Ez alferrik galdu" programaren barnean emandako elikagaiak dira; horrela, bermatzen da dendetan ez dela alferrik galduko jateko modukoa dagoen janaririk, baizik eta gizarte erakundeei emango zaiela**

Elorrio, 2016ko abuztuaren 8a.- [EROSKI](#) eta haren bezeroek 2.900 tona inguru elikagai eman dituzte behar gehien duten kolektiboentzat, 2016ko lehen seihilekoan. Tona-kopuru hori 1.737 familiak urtebetean egiten duten elikagai-kontsumoaren baliokide da. Horretatik, 2.400 tona baino gehiago EROSKI eman ditu "Ez alferrik galdu" programaren barnean; programa horren bitartez, bermatzen da EROSKIren dendetan ez dela alferrik galduko jateko modukoa dagoen janaririk, eta denda bakoitzaren inguruan dauden gizarte-erakundeei emango zaiela.

"Kontsumo-kooperatiba bat garen aldetik, EROSKIIn gizartea eraldatzeko konpromiso irmoa dugu, gure enpresa-jardueraren bitartez. Konpromiso horretan, behar handiena dutenekiko elkartasunak toki nabarmena du, eta bultzatu egiten gaitu janaria arduraz kudeatzera, zenbait gizarte-erakunderekin elkarlanean", adierazi du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak. Ildo horretan, EROSKI aitzindari izan da Espainiako banaketa-sektorean, hala produktu freskoak modu erregularrean emateko nola supermerkatu- eta hipermerkatu-sare osoan ezertxo ere ez alferrik galtzeko.

Gizarte-erantzukizuna lantzen duten ehun bat erakunderekin elkarlanean

"Ez alferrik galdu" programa gauzatzeko, EROSKI lanean aritu da Espainian gizarte-erantzukizuna lantzen duten ehun bat erakunderekin. Kooperatibak jarduteko protokolo bat prestatu du emandako elikagaien segurtasuna zorrotzaz bermatzeko. Elikagai freskoekin, esaterako, zenbait neurri hartzen dira hotz-katea ez dadin eten, ezta elikagaiak erakunde hartzaileen esku geratzen direnean ere; izan ere, haiek bermatu behar dute baldintzak zorrotz zaindu direla bai garraioan bai instalazioetan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

"EROSKI baldintzarik onenetan dauden produktuak soilik eskaintzen dizkie bezeroei. Elikagai freskoren batek freskotasuna zertxobait galdu badu edo ontziren bat behar bezala ez badago (kolpetxo bat duelako, adibidez, edo bilgarria apurtu zaiolako), kendu egiten da apaletatik, eta programa honetan parte hartzen duten erakundeei ematen zaie. Elikagai horiek beti daude iraungitze- edo kontsumitze-dataren barnean, eta ezin hobeak izaten dira jateko", azaldu du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak.

Bilketa-kanpainetan, ia 486 tona elikagai lortu dira

"Ez alferrik galdu" programaren bitartez 2.400 tona elikagai biltzeaz batera, ia 486 tona lortu dira urteko lehen seihilekoan, EROSKIren saltokietan, Vegalsan eta Caprabon elikagaien bankuen alde eginiko kanpainetan. "EROSKI In, ohikoa denez, konpromiso honetan parte hartu nahi izan dugu, eta kontsumitzaileek emandako kiloei guztizkoaren zati bat batu diogu gehigarri gisa", aipatu du Alejandro Martinez Berriochoak.

Espainiako elikagaien bankuen federazioak Espiga de Oro saria eman dio EROSKIri; federazioak sari hori ematen die elikagai-soberakinak banatzen nabarmen laguntzen duten enpresei.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)